



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko agorrrilaren 13ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko agorrrilaren hamahiruan, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, LEKUMBERRY Xantxo.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2024ko agorrrilaren 9

Afitxatze eguna : 2024ko agorrrilaren 9

2. ERABAKIA: ARROSATEGIA ETXEAREN ERABERRITZEKO ERAIKITZE-BAIMEN ESKAERA BATEN AURKEZTEA (2.2 nomenklatura)

Auzapezak herri biltzarkideei oroitarazi die Arrosategia etxearen eraberritzeko eta eskolekin loturan lirakeen eremu publikoak sortzeko proiektua. Azaldu du xedea dela herriko etxea, posta-agentzia, liburutegia, ludoteka, bulegoak eta bilkura gelak Arrosategia etxean ezartzea.

Adierazi du lan horien egiteko eraikitze-baimen bat eskatu behar dela.

Gehitu du Herri Biltzarrak baimena eman behar diola eraikitze-baimen eskaera horren aurkezteko.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari Arrosategia etxearen eraberritzeko eraikitze-baimena eskatzeko, eta B 1131 lur sailean eskolekin loturan diren eremu publikoen sortzeko.

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 9

Balizko boz kopurua : 9

ALDE : 9

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko agorrilaren 13an,

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/08/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/08/14an.